

**DOKTOREGO TESI, GRADU ETA MASTER
AMAIERAKO PROIEKTUENTZAT
I. SARIA**

UPV/EHU-KO KIMIKA FAKULTATEA

“OINARRIAK”

OINARRIAK

DOKTOREGO TESI, GRADU ETA MASTER AMAIERAKO PROIEKTUENTZAT I. SARIA

UPV/EHU-KO KIMIKA FAKULTATEA

UPV/EHUko Gipuzkoako Campusak eta BIC GIPUZKOA BERRILAN Enpresa eta Berrikuntza Zentro Europarrak garatzen eta kudeatzen duten **ENTREPRENARI programaren** esparruan, ustiapen komertzialerako aukera duten **Doktorego Tesi, Gradu eta Master Amaierako Proiektuentzat I. Saria** sustatu da. Programa horren helburua ekintzaileei bultzada bat ematea eta aholkuak eta laguntza eskaintzea da, UPV/EHUko Gipuzkoako Campusean enpresa berritzaileak sortzeko.

Entreprenari programan honako erakunde hauek hartzen dute parte: GIPUZKOA FORU ALDUNDIKO Berrikuntza, Landa Garapen eta Turismo Departamentua, SPRI, EUSKO JAURLARITZAKO Industria, Merkataritza eta Turismo Saila, EL DIARIO VASCO, UPV/EHUko Gipuzkoako Campusa eta BIC GIPUZKOA BERRILAN.

Manuel Laborde Werlinden Sariak bezalaxe, **ekimen ekintzailea eta berrikuntza** sustatzea eta aintzat hartzea du helburu ekimen honek, betiere, unibertsitateko taldeek duten know-how delakoan oinarrituta, sor daitezkeen **berrikuntza teknologikoari eta jakintzari** garrantzi berezia emanez.

Entreprenari programaren filosofiari jarraiki, enpresa bihur daitezkeen ekimen berritzaile guztiei laguntza eta bultzada emateko apustuari eutsi diote programarekin zerikusia duten erakundeek, kontuan hartuta betiere ekimen horiek EAEko enpresa-sarea berritzeko eta modernizatzeko kultura errotu behar dutela, unibertsitatearen ingurunetik abiatuta enpresa berriak sortuz.

I. HELBURUAK

- 1) Ikasle eta irakasleengan kultura ekintzailea sortzea.
- 2) Ikasleei nahiz irakasleei ekintzailtzari buruzko prestakuntza ematea; horretarako, negozio-aukerak zehazteko prozesuan parte hartuko dute.
- 3) Unibertsitateko jakintza merkatuan berritzeko aukera gisa baliatzea.
- 4) Unibertsitatearen ingurunean ideia eta enpresa berritzaileak sustatzea.

II. NORI ZUZENDUA

- 2014. urtean Gradu Amaierako eta/edo Master Amaierako proiektua aurkezten duten ikasleei
- 2014. urtean zehar doktoretza tesia prestatzen edo aurkeztu duten ikertzaileei baldin eta proiektuaren merkatu-aukerak aztertu eta, hala badagokio, proiektua gauzatu, nahi badute.

Proiektuak banakakoak izan daitezke; edo enpresarekin batera eginak, haren laguntza izanez gero.

III. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

UPV/EHUko Gipuzkoako Campuseko Kimika Fakultateko graduiko ikaslea izatea edo han ematen diren departamentu desberdinetako graduondo batetako (bai tesi doktoralak zein masterrak) ikasleak izatea.



IV. ZENBATEKOA

Aukeratzin diren proiektuei **gehienez ere 6.000 €**-ko diru-laguntza emango zaie, kopuru hori jaso eta hurrengo sei hilabeteetan proiektuen aurrebideragarritasuna aztertzeko. Diru-laguntza honela banatuko da:

- Ikaslearentzako jarduteagatiko saria
- Ekimenaren aurrebideragarritasuna aztertzeko eta negozio-eredua zehazteko gastuak.
- Unibertsitateko tutorearen aholkularitza teknikoak/teknologikoak sortutako gastuak.

Azterketa horretarako, Bic Gipuzkoa Berrilan erakundearen azpiegitura operatiboa eta aholkularitza izango dituzte.

Era berean, **Entreprenari programaren** esparruan antolatzen diren enpresa-kudeaketako prestakuntza-ikastaroetan parte hartzeko aukera izango dute.

Aurrebideragarritasunari buruzko azterketa egin eta emaitza ona ematen duten proiektuek **EKINTZAILE/TXEKINTEK programan** jarduteko aukera izango dute (60.000 € gehienez). Programa hori Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza, landa Garapen eta Turismo Departamentuak eta Eusko Jaurlaritzako Industria Saileko Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzuak (SPRI) antolatzen dute. Eta enprekin batera egindako programen kasuan, **BARNETEKIN/EKINTZAILE programan** jarduteko aukera izango dute (60.000 € gehienez), betiere enpresa horiek ekimen horretan jardun nahi badute.

V. GRADU/MASTER AMAIERAKO PROIEKTUAK BALORATZEA

Aurkeztutako proiektuak Batzorde Tekniko batek ebaluatuko ditu. Batzorde hori **Entreprenari programa** antolatzen duten erakundeetako adituek eta UPV/EHUko **Kimika Fakultateko irakasleek** osatuko dute.

Honako alderdi hauek baloratuko dira bereziki:

- Planteatzen den produktuaren/zerbitzuaren berrikuntza-maila/balitzko ahalmenaren maila
- Proiektuaren kalitatea



entreprenari

- Ikaslearen profila eta ekimena aurrera eramateko motibazio-maila
- Proiektua zuzentzen duten irakasleen iritzia
- Enpresek planteatutako proiektuetan, enpresek ematen duten laguntza eta parte-hartzea

VI. DOKUMENTAZIOA ETA BESTE HAINBAT GAI

1. "Eskaera-orria"
2. Proiektuaren justifikazio-memoria, honako alderdi hauek bilduta:
 - a. Negozio-aukeraren deskribapena, emandako ereduari jarraiki*
 - b. Aurkeztutako proiektuaren memoria.
3. Parte-hartzaileak sarian parte hartzeko duen motibazioaren azalpen laburra, gehienez ere bi orrialdekoa.
4. Enpresarekin batera egiten diren proiektuetan, enpresak proiektuarekiko duen jarrera (interesa, laguntza mota) azaltzen duen dokumentua aurkeztuko da.
5. Proiektua ebaluatzeko interesgarritzat ematen den beste dokumentazio bat.

Sariko epaimahaiak informazioa gehitzeko eskatuko du eta/edo, egokia irizten dion kasuetan, aurrez aurreko elkarrizketak egingo ditu parte-hartzaileekin.

* Proiektuaren memoria lehen adierazitako ereduari jarraiki egingo da. Proiektu askok ez dute izango bertan planteatutako alderdi guztiei erantzuteko behar adinako heldutasun-maila, eta, hortaz, ez da beharrezkoa izango puntu guztiak betetzea. Egiatzko informazioa izanez gero soilik beteko dira dagozkion puntuak.

VII. PROIEKTUAK AURKEZTEKO EPEA ETA TOKIA

Proiektuak **aurkezteko epea 2014ko urriaren 13an** hasiko da eta **azaroaren 3an** amaituko da.

UPV/EHUko Kimika Fakultateak antolatzen duen 2014ko Gradu amaierako tituluak banatzeko ekitaldian jakinaraziko da nori eman zaion saria azaroaren 7an.

Sariari buruzko informazioa/dokumentazioa:

EntreprenariGunea – Bic Aretoa

Joxe Mari Korta zentroa

Tolosa hiribidea, 72

20.018- Donostia

www.entreprenari.com

 943 015 473 / 943 000 999

 entreprenari@entreprenari.com

UPV/EHUko Kimika Fakultatea, Gipuzkoako Campus

 mercedes.notario@ehu.es